

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****VITORIA-GASTEIZKO UDALA****OGASUN SAILA****2022ko ekitaldirako ordenantza fiskal eta prezio publikoen behin-behineko onespena**

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko diren zenbait ordenantza fiskal eta prezio publikoren aldakuntzari behin-behineko onespena ematea erabaki zuen Gasteizko udalbatzak 2021eko urriaren 20an egindako osoko bilkuran.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoaren ildotik, testu osoak San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea— jendaurrean egongo direla jakinarazten da, interesdunek aukera izan dezaten dosierra aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau argitaratzen den egunetik. Helbide elektronikoa honen bitartez ere lortu ahal izango da dosierraren edukiari buruzko informazioa: ordenanzas.fiscales@vitoria-gasteiz.org. 2021eko abenduaren 13an bukatuko da erakustaldia. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betikotzat joko dira ordura arte behin behinekoak ziren erabakiak.

Orobat egongo da eskuragarri hemen: www.vitoria-gasteiz.org/zergak.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 20an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE